

TXIMELAGUA

Ezintasunak dituzten haur nikaraguarrek hartzen segitzeko baliabideak behar dituzte

Tximelagua gober-nuz kanpoko era-kundeak (www.tximelagua.org) orain bost urte ikusi zuen argia.

Donostiako hiru fisioterapeu-tak sortu zuten, urteetan Nika-raguara kooperante moduan bi-daiatu ostean bertako haurrek zituzten beharrei erantzuna emateko ahaleginean pauso bat gehiago egiteko beharra sentitu zutenean. «Naiara, Amaia eta hirurak beste erakunde batzuen bidez joaten ginen, baina kon-turatu ginen behar bereziak zi-tuzten haur asko zeudela eta erakunde hura ez zela denenga-na iristen. Ezin zuten», azaldu du Luciak, Tximelaguako hiru sortzaileetariko batek.

Nikaraguan hirietako fisio-te-rapia pediatrikoko zerbitzuak «nahiko txukunak» diren arren, hirien kanpoaldean eta landa-guneetan bizi diren haurrek ho-rietarako sarbidea edukitzeko zailtasunak zituztela ikusi zu-ten hiru donostiarrek eta, hala, haur horiek bilatu eta euren be-harrak zeintzuk ziren aztertzea-ri ekin zioten. «Gure kabuz bi-daiatzaren hasi ginen, zer egin genezakeen ikusteko. Kontura-tu ginen urrunago bizi diren haur horiek ezin zituela inork artatu, batzuetan ezin dutelako euren etxeetatik irten ere egin, urruneko landa-guneetan bizi direlako eta ez dutelako gurpil-dun aulkirik, ezta eramango di-tuen inor edota garraiobidea lortzeko bitarteko ekonomiko-rik ere. Zenbait errepede oso gaizki daude han eta 20 kilome-tro egiteko bi ordu behar izaten dira askotan... Hura ikusita zer-bait egin behar genuela erabaki genuen; motibazioa eman zi-gun bertakoen maitasunak eta bidean topatu genituen guztiek gurekin elkarlanean aritzeko erakutsi zuten prestutasunak», azaldu du Luciak.

Hala sortu zuten, 2009an, Tximelagua. Egoitza nagusia Matagalpa probintziako iparral-dean dagoen El Tuma-La Dalia udalerrian finkatu zuten, ber-tan antzeman baitzuten behar gehien eta zerbitzu gutxien zu-tenen kopuru nagusia, eta or-

 **KOOPERAZIOA** / amalur.artola@gaur8.info

Bost urte daramatza Tximelagua elkarteak Nikaraguako Matagalpa probintzian lanean. Urruneko komunitateetan bizi diren haurrei fisioterapia zerbitzua eskaini eta euren egunerokotasuna errazagoa izan dadin egiten dute lan, tokiko zentroekin elkarlanean. Orain laguntza behar dute El Tuma-La Dalian duten egoitza egokitzeko.



duetik fisioterapia pediatrikoko hainbat proiektu garatu dituzte Nikaraguako puntu ezberdine-tan. Eurak urte osoan bertan egon ezin dutenez, zentroaren egunerokotasunaz bi nikara-guar arduratzen dira. Candida Rosa batetik, zentroaren koordi-natzailea eta hara joaten diren kooperantez arduratzen dena, eta Ana, euren egunerokotasu-nean haurrak hartzen dituen fi-sioterapeuta.

UDAL AGINTARIEKIN ELKARLANA

El Tuma-La Daliako Udalarekin eskutik helduta egin du bere ibil-bidea Tximelaguak. Landa-gune-ko herri honetan ez zuten fisio-terapia pediatrikoko zerbitzurik eta orain bost urte akordioa si-natu zuten bi aldeek: elkarteak inguruko haurrek zituzten beha-rrean balorazioa egitea eta ho-rien familiak aholkatzea eskaini zien, baita fisioterapia areto bat egokitzeko materiala eta komu-nitate ezberdinetara joan ahal izateko ibilgailua ekartzea ere. Udalak haurrak eta beren fam-iliak hartzeko lokal bat utzi zien eta herrira joaten ziren koope-ranteei ostatua ematen zien, bai-ta kamionetarako erregeaia ere. Hasieran lokalari baiezkua eman bazieten ere, euren beharretara-ko egokia ez zela ikusi eta bali-a-bideak izan zituztenean alokai-ruan hartu zuten beste bat.

Hala sortu zen Katuka, lehen proiektua, eta hura amaitutzat ematean heldu ziren Katua 2, Pausoka eta Saltoka. «Egia esan, bata bestearen jarraipena dira. Lehen helburua haur horiei fi-sioterapia zerbitzua eskaintzea zen, euren garapena eta bizi ka-litatea hobetzeko behar zituzten materialak eta bitartekoak es-kaintzea, eta baita zerbitzu hori urrutien dauden komunitatee-tara iristea ere; gugana etorri ezin duten haur horiengana gu joatea», azaldu du Luciak.

Behin martxan jarrita, ingu-ruko zentroekin ere elkarlanean hasi ziren: «Nikaraguan badau-de nazio mailan aritzen diren zentro batzuk, Pipito izena du-tenak. Hiri handietan, Mana-guan adibidez, oso ondo fun-tzionatzen dute eta haurrei behar dituzten baliabideak es-